

Merkatuaren segmentazioa

Gure bezeroak hotelak eta ostatuak dira. Batez ere, bezero asko dituzten hotelei bideratua dago. Horrela bertan lan egiten duten langileei lana erraztuko diegu harreragilearen lana aurreztuko dugu.

Gure bezeroen artean ostatuak, hotel txikiak eta hotel handiak bereiziko ditugu. Hotel handiek gure produktua lehenengo erosteko prest egongo dira, haiek hainbat gela dituzte eta giltza guztien antolaketa eta kudeaketak lanak dakar, gainera erraz gal daitezke. Mugikorrarekin zuzenean sartzeari askoz erosoagoa da, hotel hauetan jende asko egoten baita harreran zain giltza emateko zain.

Hotel txikiak eta ostatuak ere gure produktua erabil dezakete, kostuen zati garrantzitsu bat kentzen baitu honek eta teknologia aurreratu duen ospea irabaz dezake.

